



# IKUSPEGIAK

**Arteen** eta **Kultura-industrien**


Estatistikako datuen  
irakurketa analitikoa

**2017**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# IKUSPEGIAK

**Arteen** eta **Kultura-industrien**

Estatistikako datuen  
irakurketa analitikoa

**2017**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2020ko urtarrila

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco  
Departamento de Cultura y Política Lingüística

ISBN:  
978-84-457-3447-6

Internet:  
[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazio teknikoa:  
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana:  
SIADECO, S.COOP.

Diseinua eta maketazioa:  
EPS Comunicación

## Aurkibidea

Sarrera .....	5
<b>I. EAE-KO ARTEEN ETA KULTURA-INDUSTRIEN ZIFRAK .....</b>	<b>6</b>
1. Sektoreen dimentsioa .....	7
2. Titulartasuna .....	13
3. Lurraldea .....	15
<b>II. ZEHARKAKO IRAKURKETAK .....</b>	<b>18</b>
1. Asimetriak .....	19
2. Zuzeneko kultura vs erreproduzitu daitekeen kultura .....	30
3. Kultura euskaraz .....	32
4. Ekimen publikoarekiko mendekotasuna eta pisua .....	43
5. Berritzea eta nazioartekotzea .....	46
6. Generoa .....	50

## Sarrera

*Arteen eta Kultura-industrien Estatistikaren* seigarren edizioak 2017ko informazioa jasotzen du. Sektoreko datu hertsiez harago doazen analisiak egitea du helburu. Ikuspegiak txostenak irakurketa orokorra eskaintzen du, interpretazioa errazteko asmoz. Estatistika 2007an jarri zen abian, eta 2009an merkataritzako eta argitaletxeen sektoreak gehitu ziren; hortaz, soilik bost urtetan bildu ditugu sektore guztiak (2009-2017), eta horrek interesa gehitzen die datu berez baliotsu hauei, joerak aztertzeo aukera ematen dutelako. Aurtengo edizioan zinema-aretoak gehitu dira, eta, hala, ikus-entzunezkoen sektoreko erakusketa osatu da.

Ikuspegiak txostenak sektoreko datuen interesa handitzen duten bi elementu ditu: kultura-sektorearen osoko ikuspegia eta zeharkako irakurketak. Analisia bi atal nagusitan egituratu da:

Lehenik eta behin, arteen eta kultura-industrien errealitatearen ezaugarriak aurkeztuko dira, sektoreko dimentsioa, titulartasuna eta lurralde-banaketa aztertuz.

Bigarrenik, datuen zeharkako irakurketa egingo da: sektoreen asimetriak, erreproduzitu daitekeen kulturaren eta zuzeneko kulturaren arteko bereizketa, agenteen jarduera ekonomikoaren bilakaera, euskarak kultura-jardueran duen pisua, agente pribatuek arlo publikoarekiko duten mendekotasun-maila, berritze- eta nazioartekotze-maila, eta emakumeen presentzia enpleguan.

Txostena osatzeko, EAEko Arteen eta Kultura-industrien sektoreek 2009-2017 aldian izandako bilakaeraren azterketa espezifikoa egingo da, eta emaitza nagusiak laburtuko dira.

I. EAE-KO ARTEEN  
ETA KULTURA-  
INDUSTRIEN ZIFRAK

IKUSPEGIAK

## 1. Sektoreen dimentsioa

2017ko datuak biltzen dituen *Arteen eta Kultura Industrien Estatistikak* erroldan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten EAEko kultura-arloetako 673 agenterik buruzko informazioa aurkezten du<sup>1</sup>. Sektore hauetako ekoizpenean, erakusketan eta merkataritzan diharduten agenteak dira:


- ◆ **Arte eszenikoen** sektorean 129 programatzaile eta 92 ekoizle daude. Programatzaileen artean, aretoak (92) eta jaialdiak (37) hartzen dira kontuan. Ekoizpenean, antzerkiko (78) eta dantzako (14) konpainia profesionalak dira nagusi.
- ◆ **Liburuaren** sektoreak 133 agente biltzen ditu; horietatik 97 liburu-dendak dira eta 36 argitaletxeak.
- ◆ **Musikaren** sektorean 139 agente sartzen dira: 116 agente zuzeneko musikan aritzen dira eta 23 diskoaren industrian. Musika-programatzaileen artean, 77 programatzaile publiko (orkestrak ere barne), 19 sustatzaile pribatu eta 20 kontzertu-areto daude. Diskoaren industria 6 diskoetxeak eta 17 disko-saltokik ordezkatzeko dute.
- ◆ **Ikusizko arteek** 55 agente hartzen dituzte barnean, erakustaretoen (36) eta arte-galerien (19) artean banatuta. Ikusizko arteetako ekoizleak lehenengo multzoan sartzen dira.
- ◆ **Ikus-entzunezko sektorea** 71 ekoizpen agentek eta 54 zinema-aretoek osatzen dute.

<sup>1</sup> Kultura-sektore bakoitzeko estatistikaren berriazko argitalpenean, erroldan sartzeko kontuan hartutako irizpide metodologikoak eta lan-eremuaren fitxa teknikoak deskribatzen dira.

1. irudia.

**Agenteak sektorearen arabera. Absolutuak.**

2009 · 2017




Kontuan hartu behar da estatistikaren 2017ko edizio honetan orain arte zenbatu gabeko agente berriak sartu direla: hain zuzen, 54 zinema-areto ikus-entzunezkoetan. Halaber, 2015ekoarekiko, musika sektorean ez dira kontabilizatzen musika- eta txistulari-bandak.

2. irudia.

**Agente sarearen bilakaera sektorearen arabera. 2009-2017.**

Oinarrizko adierazlea 100=2009



Oharra: ez dira sartu zinema-aretoen datuak.



Aurreko edizioak aditzera eman bezala, arte eszenikoen sareak ez dio egonkortasunari eutsi soilik; horrez gain, 2017an ekoizleak eta programatzaileak gehitu ditu. 2009az geroztik, % 16,3 hazi da sektorea. Azken urteetan ikusizko arteen sektoreak bizi izan du inpaktu handiena, eta 2015. urtearen aldean berroneratu dela erakusten dute aurtengo datuek.

Liburuaren eta ikus-entzunezkoen sektoreak, ordea, 2013ko erreferentzietara murriztu dira berriz, 2015ean 2013an baino datu altuagoak agertu arren. Musikaren sektorea ediziotik ediziora apur bat jaisten ari da oraindik. Adierazi behar da edizio honetan ez direla kontuan hartu musika- eta txistulari-bandak (9 agente).

2015. urtearen aldean, badira agente-sarea handitu duten zenbait sektore: diskoetxeak (% 100,0), arte eszenikoetako ekoizleak (% 21,1), ikusizko arteetako erakusketa-guneak eta ekoizleak (% 20,0), musika-programatzaile publikoak (% 11,6), arte eszenikoetako programatzaileak (% 10,3), arte-galeriak (% 5,6) eta kontzertu-aretoak (% 5,3).

3. irudia.

### Agenteak, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera.

Absolutuak eta ehunekoak · 2015-2017

Sektorea	Agentearen tipologia	2015		2017		2015-2017 aldakuntza
		Maizt.	%	Maizt.	%	%
Arte eszenikoak	Ekoizleak	76	12,1	92	13,7	▲ 21,1
	Programatzaileak	117	18,6	129	18,8	▲ 10,3
Liburua	Argitaletxeak	42	6,7	36	5,4	▼ 14,3
	Liburu-dendak	109	17,3	97	14,5	▼ 11,0
Musika	Programatzaile publikoak	69	11,0	77	11,5	▲ 11,6
	Sustatzaile pribatuak	21	3,3	19	2,8	▼ 9,5
	Kontzertu-aretoak	19	3,0	20	3,0	▲ 5,3
	Diskoetxeak	3	0,5	6	0,9	▲ 100,0
	Disko-saltokiak	20	3,2	17	2,5	▼ 15,0
Ikusizko arteak	Erakusketa-guneak	30	4,8	36	5,4	▲ 20,0
	Arte-galeriak	18	2,9	19	2,8	▲ 5,6
Ikus-entzunezkoak	Ekoizleak	91	14,5	71	10,6	▼ 22,0
	Zinema-aretoak	-	-	54	8,1	-
<b>Guztira</b>		<b>629</b>	<b>100,0</b>	<b>670</b>	<b>100,0</b>	<b>▲ 7,0</b>

Oharra: 2017an, orkestrak musika-programatzaile publikoen datuetan sartu dira, eta ikusizko arteetako ekoizleak, aldiz, ikusizko arteen erakusketa-guneen datuetan, datuen konfidentziasunarekin lotutako arrazoiak tarteko.

2017ko gastuen eta diru-sarreraren arteko balantzea positiboa da, eta 8,5 milioi euroko emaitza izan du; hau da, guztizko diru-sarreraren % 2,1. Beraz, 2015. urtearekin alderatzen badugu, joera aldatu da, orduan 6,1 milioi euroko balantzea izan baitzen emaitza (2013an, berriz, 8,6 milioi euroko emaitza negatiboa erregistratu zen estatistikako sektoreen guztizko balantzean). Aurreko ekitaldiak aditzera eman bezala, aurreko urteetako balantze positiboaren zifrak sendotu dira (14,9 milioi euro 2011n).

2015eko datuen aldean, ia-ia sektore guztietako diru-sarrerek agertzen dute goranzko joera, liburuaren sektorekoak izan ezik: hor % 18,4 jaitsi dira (ziurrenik lotura du sektoreko agenteen beherakadarekin, agenteak % 11,9 murriztu baitira).

4. irudia.

#### Diru-sarrerek, gastuak eta balantzea, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera.

Euroak milakoetan eta ehunekoak · 2017

Sektorea	Agentearen tipologia	Diru-sarrerek	Gastuak	Balantzea	Guztizko diru-sarreraren ehunekoak
		Mila eurotan	Mila eurotan	Mila eurotan	%
Arte eszenikoak	Ekoizleak	18.532,1	15.147,9	3.384,2	18,3
	Programatzaileak	37.418,1	38.089,3	-671,3	-1,8
Liburua	Argitaletxeak	27.307,1	25.561,1	1.746,0	6,4
	Liburu-dendak	43.592,3	41.546,3	2.046,0	4,7
Musika	Programatzaile publikoak	34.579,4	34.529,7	49,7	0,1
	Sustatzaile pribatuak	49.266,3	49.231,3	35,0	0,1
	Kontzertu-aretoak	3.277,5	3.340,6	-63,1	-1,9
	Diskoetxeak	418,3	400,3	18,1	4,3
	Disko-saltokiak	2.799,0	2.339,0	460,0	16,4
Ikusizko arteak	Erakusketa-guneak	7.486,1	7.474,7	11,4	0,2
	Arte-galeriak	4.738,0	1.834,6	2.903,4	61,3
Ikus-entzunezkoak	Ekoizleak	155.983,3	158.442,0	-2.458,7	-1,6
	Zinema-aretoak	22.059,3	21.000,4	1.058,9	4,8
<b>Guztira</b>		<b>407.456,7</b>	<b>398.937,3</b>	<b>8.519,4</b>	<b>2,1</b>


Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuetan sartu dira, eta ikusizko arteetako ekoizleak, berriz, ikusizko arteen erakusketa-guneen datuetan, datuen konfidentzialtasunarekin lotutako arrazoiak tarteko.

Agenteen hazkundearen eta diru-sarreraren hazkundearen arteko alde handiena ikusizko arteen sektorean ageri da. Sektoreko agente batzuek hazkunde nabarmena izan dute 2017ko diru-sarreretan eta gastuetan. Ikus-entzunezkoen sektorean gora egin du agenteen kopuruak, zinema-aretoak gehitu direlako; diru-sarreraren hazkundera, dena dela, txikiagoa izan da,

5. irudia.

**Agenteen eta diru-sarreraren kopuruaren aldakuntza, sektorearen arabera.**

Ehunekoak · 2015-2017



Enpleguari dagokionez, 2017an 2.936 langile<sup>2</sup> zeuden guztira. Ikus-entzunezkoen sektoreak biltzen du langile-proporzio handiena (% 48,2 zinema-aretoetako enpleguak zenbatuta eta % 41,5 ikus-entzunezko ekoizleak soilik hartzen badira kontuan); ondoren, arte eszenikoak (% 19,2) eta musika (% 14,9) datoz.

6. irudia.

**Agenteen langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak), sektorearen eta agente-tipologiaren arabera.**

Absolutuak eta ehunekoak · 2015-2017

Sektorea	Agentearen tipologia	2015		2017		2015-2017 aldakuntza
		Maizt.	%	Maizt.	%	%
Arte eszenikoak	Ekoiz.	204,8	7,3	287,1	9,8	▲ 40,2
	Prog.	224,1	8,0	277,5	9,4	▲ 23,8
Liburua	Arg.	168,5	6,0	173,3	5,9	▲ 2,9
	Liburu-dendak	301,7	10,7	250,8	8,5	▼ 16,9
Musika	Prog. publikoak	279,4	10,0	281,6	9,6	▲ 0,7
	Sust. pribatuak	93,5	3,3	92,6	3,2	▼ 1,0
	Kontzertu-aretoak	31,0	1,1	42,9	1,5	▲ 38,3
	Bandak	165,2	5,9			
Ikusizko arteak	Diskoetxeak	6,4	0,2	3,5	0,1	▼ 45,2
	Disko-saltokiak	21,3	0,8	16,1	0,5	▼ 24,5
	Erakusketa-guneak	33,0	1,2	61,0	2,1	▲ 84,8
Ikus-entzunezkoak	Arte-galeriak	29,5	1,0	34,3	1,2	▲ 16,4
	Ekoiz.	1.255,6	44,6	1.218,2	41,5	▼ 3,0
	Zinema-aretoak	-	-	197,3	6,7	
<b>Guztira</b>		<b>2.814,0</b>	<b>100,0</b>	<b>2.936,1</b>	<b>100,0</b>	<b>▲ 4,3</b>

Oharra: 2017an, orkestrak musika-programatzaile publikoen datuetan sartu dira, eta ikusizko arteetako ekoizleak, berriz, ikusizko arteen erakusketa-guneen datuetan, datuen konfidentzialtasunarekin lotutako arrazoiak tarteko.

<sup>2</sup> Txostenean, langile kopuruari erreferentzia egitean, urteko lanaldi osoko langileen baliokidearen kalkulua egiten da.

Enplegua lanbideko eginkizunen arabera banatuz gero, antzekotasunak hautematen dira aurreko edizioarekin alderatuta, eginkizun teknikoekin zerikusia duten enpleguak gailentzen baitira (% 52,6). Zuzendaritza-postuek guztizkoaren % 13,8 hartzen dute, kudeaketa- eta administrazio-postuek % 13,2, eta mantentze-lanekin, garbiketarekin eta segurtasunarekin lotutakoek % 20,4.

7. irudia.

**Agenteen langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak), sektoreen, agente-tipologiaren eta kategoría profesionalen arabera.** Absolutuak eta ehunekoak · 2017

Sektorea	Agentearen tipologia	Zuzendaritza		Teknikoa		Kudeaketa / Administrazioa		Beste batzuk		Guztira	
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
Arte eszenikoak	Ekoizleak	84,6	29,5	52,4	18,2	51,9	18,1	98,2	34,2	287,1	100,0
	Programatzaileak	33,7	12,2	101,3	36,5	74,5	26,9	67,9	24,5	277,5	100,0
Liburua	Argitaletxeak	35,6	20,5	80,3	46,3	41,7	24,1	15,7	9,1	173,4	100,0
	Liburu-dendak	42,7	17,0	91,3	36,4	57,8	23,1	59,0	23,5	250,8	100,0
	Prog. publikoak	18,8	6,7	206,5	73,3	36,3	12,9	20,0	7,1	281,6	100,0
	Sust. pribatuak	27,5	29,7	22,9	24,7	25,6	27,6	16,6	18,0	92,6	100,0
Musika	Kontzertu-aretoak	6,1	14,1	6,5	15,1	2,9	6,8	27,4	63,9	42,9	100,0
	Diskoetxeak	1,2	33,8	1,6	46,9	0,4	12,6	0,2	6,7	3,5	100,0
	Disko-saltokiak	6,3	38,9	6,6	41,1	2,0	12,4	1,2	7,6	16,1	100,0
Ikusizko arteak	Erakusketa-guneak	6,1	10,0	22,0	36,1	10,3	16,9	22,6	37,0	61,0	100,0
	Arte-galeriak	14,6	42,5	8,3	24,0	10,7	31,2	0,8	2,2	34,3	100,0
Ikus-entzunezkoak	Ekoiz.	111,4	9,1	899,4	73,8	33,4	2,7	174,0	14,3	1.218,2	100,0
	Zinema-aretoak	16,1	8,1	45,3	23,0	40,0	20,3	95,9	48,6	197,3	100,0
<b>Guztira</b>		<b>404,5</b>	<b>13,8</b>	<b>1.544,5</b>	<b>52,6</b>	<b>387,5</b>	<b>13,2</b>	<b>599,6</b>	<b>20,4</b>	<b>2.936,1</b>	<b>100,0</b>

Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuetan sartu dira, eta ikusizko arteetako ekoizleak, berriz, ikusizko arteen erakusketa-guneen datuetan, datuen konfidentzialtasunarekin lotutako arrazoiak tarteko.

## 2. Titulartasuna


Titulartasun publikoko agenteak nagusiki administrazio publikoek partaidetutako erakunde guztiak dira (edozein dela ere haien izaera juridikoa); titulartasun pribatua irabazi-asmozko enpresa-jarduera duten agenteei dagokie, eta azkenik, elkarteak eta fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira.

Aurreko urteetan bezala, titulartasun pribatuko agenteak dira nagusi (% 50,8 2017an), baina beheranzko joera arina ageri dute.

8. irudia.


**Agenteak titulartasunaren arabera.**

Ehunekoa · 2009-2017



Ikuspegi ekonomikotik, eragile pribatuek eta publikoek antzeko pisua dute diru-sarreraren bolumenari dagokionez, eta zertxobait gehiago dira pribatuak (% 47,6) publikoak baino (% 47,1).

9. irudia.

**Diru-sarrerak, gastuak, guztizko langileak eta agenteak, titulartasunaren arabera.** Ehunekoak · 2017

Zifra absolutuetan, bai agente publikoek bai pribatuek 190 milioitik gorako diru-sarrerak dituzte. Gastuari dagokionez, agente publikoek diru-sarreraren guztizkoa gainditzen dute (195,7 milioi euro); agente pribatuak, aldiz, lortutako diru-sarreraren azpitik geratzen dira, eta balantze positiboa lortzen dute horrela (180,9 milioi euroko gastua guztira). Elkarteak eta fundazioak ez dute diru-sarreraren eta gastuen guztizkotik % 6 baino gehiago hartzen. Alderdi horretan, agente horien pisu ekonomikoak ez du inpaktu handirik industrian.

Enpleguaren arloan, joera bestelakoa da eta titulartasun pribatuko agenteak biltzen dituzte langile gehien (% 51,3, 1.506 enplegu). Ondoren agente publikoak daude (% 41,3, 1.214 enplegu) eta, azkenik fundazioak eta elkarteak (% 7,4, 216 langile).


### 3. Lurraldea

Lurralde historikoei banan-banan begiratzuz gero, Bizkaian kontzentrazio handia dago. Lurraldeak garrantzi nabarmena du bolumen ekonomikoari (guztizko diru-sarreraren % 70,9 eta gastuen % 70,5) eta enpleguari dagokienez (% 63,1).

10. irudia.

**Agenteen, diru-sarreraren, gastuen eta langileen ehunekoan banaketa lurralde historikoaren arabera.**

Ehunekoak · 2017



Dena dela, aurreko urteetan adierazi den bezala, lurralde bateko kulturaren dentsitatea biztanleriarekin erkatu behar da. Hori horrela, kultura-bilbea biztanleriaren arabera aztertuz gero (ratioa 100.000 biztanleko), Gipuzkoa nabarmentzen da gehien (52,2), eta ondotik datoz Araba (42,3) eta azkenik Bizkaia (37,1). Aipatu behar da, orobat, Arabak eta Bizkaia antzeko mailak agertu dituztela azken urteotan, eta Arabak Bizkaia gainditu ere egin duela aurtengo datuetan (kultura-merkataritzaren arloan izan ezik, biztanle bakoitzeko dagoen programatzaile, erakusketa-gune eta ekoizleen dentsitate kulturalaren datuak handiagoak dira Araban).

11. irudia.


**Programatzaileen eta erakusketa-guneen, saltokien eta ekoizleen banaketa eta ratioa 100.000 biztanleko, lurralde historikoaren arabera.** Absolutuak eta ratioa 100.000 biztanleko · 2017

Agentearen tipologia	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		EAE	
	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.
Programatzaileak eta erakusketa-guneak	22,7	44	27,7	150	16,9	141	21,4	335
Saltokiak	7,2	14	8,5	46	8,8	73	8,5	133
Ekoizleak	12,4	24	15,9	86	11,4	95	13,1	205
<b>Guztira</b>	<b>42,3</b>	<b>82</b>	<b>52,2</b>	<b>282</b>	<b>37,1</b>	<b>309</b>	<b>42,9</b>	<b>673</b>

Programatzaileen eta erakusketa-guneen banaketa xeheak agerian uzten du Bizkaia eta Gipuzkoa nagusitzen direla. Gipuzkoak biltzen ditu musikako eta arte eszenikoetako programatzaileen eta ikusizko arteen erakusketa-guneen ia-ia erdiak; Bizkaiak, berriz, ia-ia % 40. Hiru agente mota horiek Araban duten pisua ez da % 15,0 baino handiagoa.

12. irudia.

**Programatzaileak eta erakusketa-guneak, lurralde historikoen arabera.** Ehunekoak · 2017




Saltokiei dagokienez, lurraldearen arabera aldeak hautematen dira, baina % 80 Bizkaian eta Gipuzkoan daude. Liburu-denden eta arte-galerien erdiak baino gehiago Bizkaian daude, eta disko-saltokien erdiak baino gehiago Gipuzkoan. Kontzertu-aretoek ere antzeko joera agertzen dute: agenteen % 80 Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeen artean banatzen da (% 40 lurralde bakoitzeko), eta joera handiagoa ikusten da Arabako lurraldean (% 20), merkataritzako beste saltoki pribatuetan gertatu ez bezala.



13. irudia.

**Saltokiak eta kontzertu-aretoak, lurralde historikoaren arabera.**

Ehunekoak · 2017




Ekoirolek ere aurreko agenteen joera berbera agertzen dute: oinarrian, Gipuzkoan eta Bizkaian daude kokatuta, baina, hurrengo irudiari erreparatuz gero, agerian geratzen da Araban pisu nabarmena dutela arte eszenikoen ekoirolek, % 18,5 harturik.

14. irudia.

**Ekoirolek lurralde historikoaren arabera.**

Ehunekoak · 2017



# II. ZEHARKAKO IRAKURKETAK

KUSPEGIAK

## 1. Asimetriak

Atal honek sektore bakoitzean dauden asimetriak azalarazi nahi ditu, agenteen diru-sarrerak kontuan harturik. Horretarako, diru-sarrera altuenak dituen taldeari jarriko zaio arreta, sektorearen osotasunean zer eragin duen jakiteko. Datu agregatuak beharrezkoak dira osoko ikuspegia lortzeko, baina aztertutako eremu bakoitzak berez dituen desberdintasunak lausotzen dituzte. Horregatik, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20 ak sektore bakoitzaren osotasunean zer eragin duen aztertuko du kapitulu honek, 80-20 araua aplikatuta.


Lehenik eta behin, sektore batzuen eta besteen asimetriei eta kontzentrazio-mailei orokorrean begiratzuz gero, ikusten da diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20ek ia-ia sektore guztietan metatzen dituztela diru-sarrera guztien 10 eurotik 7 eta 9 euro artean (liburu-dendak izan ezik, % 57,9ko ehunekoarekin).

Diru-sarreraren kontzentrazio hori, jardueraren kontzentrazioarekin alderatuta, lagungarria da jardueren eta negozioen arteko diferentziak ikusteko. Hala, nabarmentzekoa da agenteen % 20 horrek kultura-merkataritzan duen pisua: sektore horietako salmenten % 70 eta % 80 bitartean metatzen du.

Hala ere, diru-sarreraren kontzentrazio-maila handiena duten erakusketa-guneen eta programatzaileen jarduerak % 30 inguruko pisua du sektore osoan. Agente nabarmenen talde horren eta gainerakoen arteko diferentzia ez datza kontzertuen edo emanaldien kopuruan, baizik eta programatzen dituzten ikuskizunen eta kontzertuen kostuan.

15. irudia.

**Agenteen tipologiaren rankinga, diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20aren diru-sarreraren kontzentrazioaren eta jarduera-bolumenaren\* arabera.** Ehunekoak · 2017



### Arte eszenikoen ekoizleak

Arte eszenikoen alorrean, diru-sarrera gehien dituzten ekoizleen % 20ak sektoreko diru-sarreraren % 75,8 biltzen du; aurreko edizioetan baino portzentaje apur bat handiagoa da.

\* Disko-saltokiak eta liburu-dendak = salmentak; argitaletxeak = nobedade gisa editatutako tituluak; arte eszenikoak = funtzioak; musika = kontzertu programatuak; ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeak = ekoizpenak; ikusizko arteak = erakusketak.

(1) EITB gabe.


Aztertutako adierazle guztietan islatzen da joera hori: buruan dagoen talde horretako enplegua % 44,8 da 2015ean, eta % 45,2, aldiz, 2017an.

Jarduerari begiratzuz gero, aurreko edizioan egindako emanaldien kopurua nabarmendu zen, % 67,0 gehitu baitziren (727 emanaldi gehiago zifra absolutuetan). Hala ere, 2017an zifra absolutuak hazi badira ere (94 emanaldi gehiago), haien pisu erlatiboa murriztu egin da. Ekoitzitako eta ustiatutako ikuskizunak apur bat beheratu dira, bai zifra erlatiboetan bai absolutuetan.

16. irudia.

**Diru-sarrera handienak dituen arte eszenikoaren ekoizleen % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan.**

2015-2017



**Arte eszenikoetako programatzaileak**


Diru-sarrera bolumen handiena biltzen duten antzokien ezaugarriek azaltzen dituzte datuak: ekipamendu handiak dira, eta hiriburuetan eta udalerrri nagusietan daude.

Diru-sarrerei dagokienez, arte eszenikoetako areto handien pisuak oihartzuna du bai enpleguan bai erakartzen duten jende kopuruan. Enpleguaren eta ikusleen pisua berriz murriztu da, 2015ean jada ikusi bezala: 18 aretok metatzen dituzte diru-sarrera guztien % 75,4 (2015eko ehunekoa baina apur bat handiagoa), enpleguaren % 61,7 eta ikusleen % 58,5 (2015ean baino % 4,3 gutxiago).

17. irudia.

**Diru-sarrera handienak dituen arte eszenikoen programatzaileen % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan.**

2015-2017




Arte eszenikoetako jaialdien asimetria nabarmena da: guztizko diru-sarreren % 78,1 biltzen dute diru-sarrera kopuru handiena metatzen duten 7 jaialdiek (datuak aurreko urteetan baina apur bat txikiagoak dira).

Azken urteotan, diru-sarrerekin alderatuz gero kontrako joera izan du enpleguak; izan ere, 2013an eta 2015ean gorabidean zegoen. 2017an, jaialdien % 20aren langile kopurua langile guztien % 63,9ra murriztu zen; hau da, 2015ean baino % 14,8 gutxiago (6,3 langile zifra absolutuetan).

Jarduerari dagokionez, programatutako ikuskizunen portzentajeak 2015eko joerari eutsi dio, eta berriz ere murriztu da, % 31,2ra arte. Programatutako emanaldiei erreparatzen badiegu, ikusten da 2015ean gora egin zutela eta 2017an apur bat jaitsi direla; xeheki aztertuta, % 0,5eko beherakada ageri zaigu (2 emanaldi guztira).

18. irudia.

**Diru-sarrera handienak dituen jaialdien % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan.** 2015-2017




### Liburu-dendak eta argitaletxeak

Sektorean diru-sarrera gehien dituzten 19 liburu-dendek guztizko diru-sarreraren % 57,9 metatzen dute, baita liburuak salduz guztira lortutako diru-sarreraren % 58,1 ere; adierazi behar da, horietako asko kateetakoak edo liburu-denda handiak izan arren, badirela liburu-denda independenteak ere.

Enpleguari dagokionez, antzeko dinamikari jarraitzen dio: % 46,9ko pisua du sektoreko guztizko enpleguan (kopuru absolutuetan, 117 enplegu sortzen dituzte).

19. irudia.

**Diru-sarrera handienak dituen liburu-denden % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan.** 2015-2017



Diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20aren barruan dauden 7 argitaletxeek 25,3 milioi euroko diru-sarrerak dituzte (sektoreko bolumen osoaren % 67,3); gainera, liburuen salmentagatik lortutako diru-sarreraren % 66,7 biltzen dute (guztira, 25,2 milioi euro zenbateko absolutuetan).


Produktibitatea nabarmen jaitsi da: hala, 2015ean ale guztien % 75 argitaratzen zen nobedade gisa, eta 2017an, aldiz, % 53,0ra jaitsi da zifra hori.

Nolanahi ere, langileen zifrak dira salbuespena, eta datuek joera apur bat gorakorra agertzen dute. Ildo horretan, oraindik ere sektorearen erdiari ematen diote lana (% 53,5).

20. irudia.

**Diru-sarrera handienak dituen argitaletxeen % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan.**

2015-2017



### Musika-programatzaileak

2017an, musika-programatzaile publikoen taldeko asimetria nabarmen handitu da, batez ere diru-sarreretan eta enpleguan. Orkestrei buruzko datuak talde honetan sartuko direlako da hala (datuen babesarekin lotutako arrazoiak direla eta, datuok ezin dira banakatuta eman).

Alderdi horretan, diru-sarrera handienak dituzten musika-programatzaile publikoen % 20ak guztizko diru-sarreraren % 85,5 biltzen du. Diru-sarreraren zenbateko handiena bereganatzen duten 15 agenteek 29,5 milioi euro biltzen dituzte eta enplegu publikoaren % 85,9ri ematen diote lana.


Programatutako kontzertuek estatistikaren aurreko urteetako balioei eutsi diete (% 45,4), eta guztira bildutako hamar ikusletatik zazpi erakartzen dituzte oraindik ere (% 68,1).



21. irudia.

**Diru-sarrera handienak dituen musika-programatzaile publikoen % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan.**

2015-2017




Asimetria handiena sustatzaile pribatuen artean dago. Diru-sarreraren bolumen handiena duten lau agente pribatuek % 89,8ko pisua dute guztizko diru-sarreretan (2015ean baino % 8,7 gehiago).

Hala ere, gainerako aldagaietan nabarmen murrizten da asimetria. 2015ean, ikusleen % 74,9 bildu zituzten lau agente horiek; 2017an, aldiz, % 33,6ra beheratu da zifra hori. Langileetan ere beheranzko joera bera ikusi da: 2015ean % 65,2 ziren, eta 2017an, berriz, % 42,8. Programatutako kontzertuei dagokienez, % 41,0 izatetik % 24,3 izatera igaro dira (552 kontzertu 2015ean eta 262 kontzertu 2017an).

22. irudia.

**Musika-sustatzaile pribatuen % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan.**

2015-2017



Aurreko edizioan joera-aldaketa sumatzen zen estatistikaren beste edizioen aldean (diru-sarrera handienak zituzten lau aretoak diru-sarreraren % 60,2 lortzetik % 70,3 lortzera igaro ziren), baina 2017an apur bat murriztu zen diru-sarreraren pisua (% 65,2).


Enpleguak 2015ean hasitako beheranzko joera bera agertzen du. 2013an, langileen % 63,3 metatzen zituzten lau kontzertu-aretoek; 2015ean behera egiten hasi zen zifra hori, ordea, eta 2017an % 38,3ra murriztu da.

Hala ere, ikusle kopurua nabarmen hazi da: 2015ean % 25,8 ziren, eta 2017an, berriz, % 47,6 (70.000 ikusle baino gehiago).

23. irudia.

### Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten kontzertu-aretoen % 20ren pisu erlatiboa.

2015-2017




### Disko-saltokiak

Aurreko edizioetan ikusten zenez, disko-saltoki nagusiek sektore osoan duten pisua % 70 inguruan dago adierazle guztietan, enpleguan izan ezik, alderdi horretan % 51,6ko pisu erlatiboa baitu. Hiru saltokik metatzen dute diru-sarreraren % 68,3, enpleguaren % 70,2 eta EAEn saldutako diskoen % 74,4.

24. irudia.

**Diru-sarrera handienak dituen disko-saltokietako agenteen % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan.**

2015-2017



**Ikusizko arteetako agenteak**


2017an, arte-galerien asimetriak aurreko edizioeko joerari eutsi dio, eta goranzko datuak agertzen ditu. Sektorean pisu handiena duten lau arte-galeriek diru-sarreraren % 83,6 metatzen dute eta salmentengatiko diru-sarreraren % 84,0 ere.

Aurreko edizioetan ikusi bezala, sektoreak berezko ezaugarriek dituen sustatutako erakusketa-denboraldiari eta enpleguari dagokienez, enpleguaren (guztizkoaren % 44,7) eta egindako erakusketen (% 23,6) zifretan duten pisua sektoreko agente kopuruari egokitzen zaio.

25. irudia.

**Diru-sarrera handienak dituen arte-galerien % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan.**

2015-2017




Erakusketa-areto handiei buruz, aipatu behar da asimetria handia dagoela oraindik ere diru-sarreraren eta enpleguaren ikuspegitik. Diru-sarreraren bolumen handiena duten zazpi aretoek guztizko diru-sarreraren % 73,9 eta enpleguaren % 42,6 hartzen dituzte; hortaz, 2015eko antzeko balioak mantendu dituzte diru-sarrerei dagokienez, baina erlatiboki nabarmen jaitsi da enplegua (5,9 langile gutxiago). Erakusketek asimetriarik gabe jarraitzen dute.

26. irudia.

### Diru-sarrera handienak dituen erakusketa-aretoen % 20aren su erlatiboa sektoreko adierazleetan.

2015-2017



### Ikus-entzunezko sektoreko agenteak

Ikus-entzunezko ekoizleen asimetria aztertzeko, kanpoan utzi da EITB; izan ere, haren tamainak eragin handia du datuen gain eta sektorearen gainerakoaren ezaugarriak zehaztea zailtzen du. Ikus-entzunezko euskal sektorean, EITBk diru-sarreraren aurrekontuaren % 72,6 eta guztizko enpleguaren % 49,9 hartzen du. 2015ean, sektorean duen pisua apur bat txikitu zen 2013. urtearen aldean, baina 2017an berriz ere egin du gora, eta 2013ko zifretara hurbildu da (diru-sarreraren % 72,5 eta enpleguaren % 52,5).


EITB alde batera utzita, diru-sarrera handien % 20 duten agente-taldeak diru-sarreraren % 70,1 du. Talde horrek 13 ekoizpen-enpresa biltzen ditu eta sektoreko % 59,2ri ematen dio enplegua (EITB kontuan hartu gabe). Ehunekoetan, 2017an gora egin zuen 2015eko datuekin alderatuz gero, baina kopuru absolutuetan % 1,4 beheratu da (5 langile gutxiago).

Hala ere, ekoizpenei dagokienez ia-ia ez dago asimetriarik: jardueraren pisua % 6,7koa da. Aurreko edizioan nabarmendu bezala, ekoizpen-enpresek proiektu gutxi baina tamaina handikoak egiten dituztelako izaten dute pisu txikia ekoizpenen guztizkoan. Nabarmenezkoa da, orobat, 2015. urtearekin alderatuz gero 2017an nabarmen murriztu dela ekoizpen kopurua. 2017an beheratu egin da 2015ean jasotako hazkundera, estatistikan inoiz jasotako portzentaje txikienera murrizteraino.

27. irudia.

**Diru-sarrera handienak dituen ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen % 20aren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan (1).**

2015-2017



(1) ETB kontuan hartu gabe


2017an, barnean hartu dira zinema-aretoen datuak. Jarraian, agente horien artean dagoen asimetria ageri da: zinema-aretoen % 20k diru-sarreraren % 73,5 metatzen du, baita txarteldegietan guztira bildutako diru kopuruaren % 76,1 ere.

Enpleguari dagokionez, diru-sarrera handienak dituzten zinema-aretoek langileen % 65,2ri ematen diote enplegua. Ikusle kopuruan ere asimetria dago; hala, ikusle guztien % 71,9 hamaika zinema-aretotan metatzen da. Balio doienak programatutako filmenak dira, agente horiek % 38,4 metatzen baitute; dena dela, emanaldi-bolumen handia ere hartzen dute hamaika agente horiek (% 78,7).

28. irudia.

**Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten zinema-aretoen % 20ren pisu erlatiboa.**

2017



## 2. Zuzeneko kultura vs erreproduzitu daitekeen kultura

Zuzeneko kulturak arte eszenikoei, musikari eta ikusizko arteei loturiko zuzeneko adierazpenen multzoa hartzen du barnean. Liburuaren, diskoaren edo ikus-entzunezkoen kulturaren industriak sortzen dituen produktuen ekoizpenarekin eta kontsumitzeko moduarekin alderatzen bada, bestelakoak dira.


Nabarmentzekoa da estatistikaren edizio berri honetan zinema-aretoak sartu direla ikus-entzunezko sektoreko agenteen artean. Ildo horretan, 2017an, aldaketa txiki batzuk igartzen dira agenteen maparen banaketan, kopuru absolutuetan, 2015eko maparen aldean. 2015ean, erreproduzitu daitekeen kulturako agenteak 265 ziren, eta 2017an 281, % 6,0 hazita. Zuzeneko kulturako agenteak ere gehitu dira; izan ere, 2017an % 7,7 agente gehiago erregistratu dira 2015ean baino.

Nolanahi ere, agenteen % 41,8 erreproduzitu daitekeen kulturaren arlokoa da, eta gainerako % 58,2ak, aldiz, zuzeneko kulturari dihardu.

29. irudia.

**Arteen eta kultura-industriaren banaketa zuzeneko kulturaren eta erreproduzitu daitekeen kulturaren arloetan.**

Ehunekoak · 2015-2017



Zuzeneko kulturak diru-sarreretan eta enpleguan duen pisua 2009az geroztik handitzen ari da, baina ehunekoetan ez du aldakuntza handirik agertzen. Erreproduzitu daitekeen kulturaren diru-sarrerak, 2017an, 252,2 milioi eurotara iritsi ziren (2009an baino 76,9 milioi gutxiago eta 2015ean baino 7,9 milioi gehiago); zuzeneko kulturarenak, aldiz, 155,3 milioi euro izan ziren 2017an (2009an baino 15,7 milioi euro gehiago eta 2015ean baino 26,8 milioi gehiago).

2017an, erreproduzitu daitekeen kulturaren enplegua % 63,3 zen, eta zuzeneko kulturarena, aldiz, % 36,7. Horrek esan nahi du lehenak 1.859,3 enplegu eman zituela, zuzeneko kulturaren


1.076,8 enpleguen aldean. 2009tik, 208,9 enplegu galdu ditu, eta, aldiz, zuzeneko kulturak 1,2 langile gehitu.

EITBren eragina kontuan hartu gabe aztertzen badira datuak, ondoriozko inpaktua handiagoa da oraindik; izan ere, erreproduzitu daitekeen kulturaren pisua txikitzen da eta zuzeneko kulturak garrantzi handiagoa hartzen du: zuzeneko kulturak % 46,2ko pisua hartzen du guztizko enpleguan, baita diru-sarreraren % 52,8 ere.

30. irudia.

**Diru-sarrerak zuzeneko kulturaren eta erreproduzitu daitekeen kulturaren agenteen arabera.**


Ehunekoak · 2015-2017



31. irudia.

**Langileak (urteko lanaldiko osoko langileen baliokideak) zuzeneko kulturaren eta erreproduzitu daitekeen kulturaren agenteen arabera.**

Ehunekoak · 2015-2017




### 3. Kultura euskaraz

Estatistikaren azken edizioan eta Ikuspegiak izeneko txosten honetan bertan aurkeztu bezala, euskarazko kulturaren datuak aztertu ahal izateko gogoan izan behar da EAEko hizkuntzen errealitatea zein den. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitara emandako azken datuek agerian utzi dute 16 urtetik gorako helduen % 33,9 elebiduna dela, % 19,1 elebidun pasiboa eta % 47 elebakar erdalduna. Lurrealdean artean alde handiak daude: Gipuzkoako biztanleen erdiak elebidunak dira (% 50,6). Bizkaian, biztanleen laurdena baino apur bat gehiago dira elebidunak (% 27,6), eta Araban bostena dira (% 19,2).

32. irudia.

**EAEko biztanleen banaketa, euskara-ezagutzaren eta lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak.**

2016



Iturria: EAEko VI. Inkesta Soziologikoa. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskararen erakunde publikoa.


Adinaren arabera banaketari esker, euskal biztanleriak 35 urtetik beherakoen artean zer pisu duen ikusten dugu: elebidunak dira 16 eta 24 urtetik beherako biztanleen % 71,4 eta 25 eta 34 urte arteko biztanleen ia-ia erdiak. 1991. urtetik honako bilakaera datuek argi eta garbi erakusten dute euskara-ezagutzaren hazkundera biztanle gazteenen artean egindako aurrerapenari zor zaiola.



33. irudia.

**Biztanleria elebidunaren banaketa, adinaren arabera.**

Ehuneakoak · 2016



Iturria: EAEko VI. Inkesta Soziologikoa. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskararen erakunde publikoa.

Hizkuntzen errealitate horrek asko baldintzatzen du euskarazko kultura-eskaintzaren merkatu potentziala, adinaren eta lurraldearen arabera, eta horrek eragina du ekoizpenen generoetan eta tipologietan eta programatze-lekuetan, udalerrien lurraldeari eta tamainari dagokienez.


**Euskara arte eszenikoetan**

Euskarak arte eszenikoetan duen presentzia aldakorra da, konpainiak zer lurraldetan dauden eta ekoizpenaz edo areto eta jaialdietan programatzeaz ari garen. Ekoizpenari dagokionez, euskaraz egiten diren ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsoak dituzten ekoizpenak zenbatzen dira. Guztira egindako ekoizpenetatik, % 53,7 (72 ekoizpen zifra absolutuetan) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz dira. 72 ekoizpen horietatik, 10etik 4 euskaraz egiten dira (% 43,2), eta 10etik 6 euskaraz eta gaztelaniaz (% 56,8).

34. irudia.

**Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoen ekoizpenean (1).**

2009-2017



(1) Euskaraz egindako ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsioak dituzten ekoizpenak zenbatzen dira.

Euskararen presentziak lurraldeetako arte eszenikoen ekoizpenean zer bilakaera duen aztertzen badugu, ikusten da Gipuzkoan apur bat hazi dela ekoizpena, eta beste lurraldeetan baino bolumen handiagoa duela. Gipuzkoak % 33,2ko pisua du ekoiztutako ikuskizunetan, eta horietatik % 71,7 dira euskaraz (% 68,6 2015ean).

Ekoiztutako 10 ikuskizunetik 3 Araban egiten dira (% 26,8), eta horietatik % 43,1 dira euskaraz. Euskarazko ekoizpenen proportzioa apur bat jaitsi da 2015eko datuen aldean, urte hartan gora egin ondoren. Eta, azkenik, Bizkaian 10 ikuskizunetik 4 egiten dira (% 40,1), eta euskarazko ekoizpenek % 46,1eko pisua dute; beraz, 2015. urtetik beherakada erregistratu da, urte hartan % 62,5 baitziren.


Euskarazko antzerkiaren ekoizpena soilik aztertuz gero, dantza eta beste hizkuntza eszeniko batzuk kontuan hartu gabe, hamar ekoizpenetatik zazpi hizkuntza horretan mantentzen dira, baina xeheki erreparatzen bazaie beherakada txiki bat igartzen da 2015. urteko datuen aldean, orduan euskarazko ekoizpenak % 72,8 baitziren, eta orain, berriz, % 71,1.

Generoaren arabera desberdintasunei erreparatuz gero, haurrentzako antzerkia nabarmentzen da (% 87,8), guztizko batez bestekoaren gainetik baitago; ondoren kaleko antzerkia (% 66,5) eta testuko antzerkia (% 57,1) datoz, batez bestekoaren puntu batzuk azpitik. Ez dago euskarazko musika-ekoizpenik eta antzerki lirikoaren kasuan ekoizpen bakarra dago eta euskaraz da.

37. irudia.

**Euskarazko antzerki-ekoizpena (1) tipologiaren arabera.**

Ehuneakoak · 2017



(1) Euskaraz egindako ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsioak dituzten ekoizpenak zenbatzen dira.



Arte eszenikoen programazioari dagokionez, emanaldien % 37,7 egiten da euskaraz: horietatik % 81,9 antzerkietan eta % 18,1 jaialdietan. Aztertutako aldian izandako gorabeherak ez dira ekoizpenekoak bezain nabarmengarriak, baina aipatu behar da 2011. urtetik goranzko joera duela euskarazko programazioak: 2011n % 30, 2013an % 33,4, 2015ean % 34,9, eta 2017an % 37,7.

Euskararen presentziaren datuak lurraldeka aztertzen badira, Gipuzkoa nabarmentzen da, % 56,3, 2017an; Araba gorabeheratsu, % 28,7; eta Bizkaia azken urteotan bere horretan mantentzen da.

38. irudia.

**Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoen programazioan, lurralde historikoaren arabera.**

Ehunekoak · 2009-2017



Arte eszenikoen erakusketa-guneen profilari begiratzen badiogu, ikusten da agentearen tamainak eragina duela euskarak programazioan duen presentzian. Arte eszenikoen aretoen artean, areto ertainetan eta, bereziki, txikienetan egindako antzezpeneen pisua nabarmentzen da. Lehenengo horietan, 10 antzezpeneetik 4 dira euskaraz, eta azkenekoetan, berriz, ia-ia 10etik 7. Hala ere, 2017an euskarak presentzia txikiagoa du jaialdietan, 2015eko datuen aldean hazi arren: jaialdietan egindako 10 antzezpeneetik ia-ia 3 dira euskaraz. 2015ean, aldiz, 10 antzezpeneetik 1,5 erregistratu ziren hizkuntza horretan.

39. irudia.

**Arte eszenikoen programatzaileek antolatutako euskarazko antzezpeneak, tipologiaren arabera. Absolutuak, ehunekoak eta antzezpeneen batez bestekoa, aretoen arabera.**

2017


Agentearen tipologia	Euskaraz egindako antzezpeneak			Antzezpeneak guztira
	Maizt.	%	Batez beste	Maizt.
Areto handiak	83	15,1	20,8	550
Areto ertainak	588	38,0	16,3	1.546
Areto txikiak	528	65,5	12,6	806
Aretoak guztira	1.198	41,3	14,6	2.902
Jaialdiak	264	27,2	7,6	973
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.463</b>	<b>37,7</b>	<b>12,5</b>	<b>3.875</b>

Ekoizpenetan ez bezala, programatutako antzerki-genero guztietan daude euskarazko antzezpeneak (ez dira kontuan hartu dantza eta beste hizkuntza eszenikoak). Baina, ekoizpenetan gerta bezala, haurrentzako antzerkia besteetatik urrun ageri da (% 68,5) eta ondotik datoz kaleko antzerkia (% 38,9), musika-antzerkia (% 37,5) eta testuko antzerkia (% 31,6). Ekoizpenean, ia-ia ez dago antzerki lirikorik; programazioan, aldiz, % 12,2ko pisua du (ehuneko hori 2015eko % 19,1a baino apur bat txikiagoa da).

40. irudia.

**Euskarazko antzerki-programazioa tipologiaren arabera.**

Ehuneakoak · 2017




Azkenik, laburpen gisa, arte eszenikoetako ekoizpenen eta programazioen datuak lurralde historikoaren arabera aztertzen badira, nabarmengarria da hiru lurraldeetan euskarak pisu handiagoa duela ekoizpenean programazioan baino.

41. irudia.

**Euskararen presentzia arte eszenikoaren ekoizpenean eta rogramazioan, lurralde historikoaren arabera.**

Ehuneakoak · 2017



### Euskara ikus-entzunezkoetan

Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpenari dagokionez, euskaraz egindako ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsioak dituzten ekoizpenak zenbatzen dira.

2017an, ikus-entzunezko ekoizpenen % 19,9 ekoitzi zen euskaraz (hau da, murriztu dira 2015eko datuen aldean, orduan % 39,8ko pisu erlatiboa zutenez). EITB kontuan hartuz gero, pisu hori ekoizpenaren % 29,8ra handitzen da.

Gipuzkoako enpresetan, ekoizpenen erdiak baino gehiago (% 60,2) euskaraz dira. Horien artean % 47,0 euskaraz soilik ekoizten dira, eta % 53,0 bai euskarazko bai gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak dira. Araban, hamar ekoizpenetik zortzi dira euskaraz (horietatik % 77,8 euskaraz eta gaztelaniaz ekoizten dira), eta Bizkaian, aldiz, hamarretik bi (% 21,5, eta horietatik euskara hutsean egindako ekoizpenak % 29,9 dira eta euskaraz eta gaztelaniaz egindakoak, berriz, % 70,1).

42. irudia.

#### Euskarazko eta euskara eta gaztelaniazko ikus-entzunezkoen ekoizpena lurralde historikoaren arabera.


Ehunekoak · 2017

Lurralde historikoa	Euskara	Euskaraz eta gaztelaniaz	Guztira
Araba	% 18,2	% 63,6	% 81,8
Gipuzkoa	% 28,3	% 31,9	% 60,2
Bizkaia	% 6,4	% 15,1	% 21,5
<b>Guztira</b>	<b>% 19,9</b>	<b>% 25,6</b>	<b>% 45,5</b>

43. irudia.

#### Euskarak ikus-entzunezkoetan duen pisu erlatiboa, lurralde historikoaren arabera.

Ehunekoak · 2017



(1) Euskaraz egindako ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsioak dituzten ekoizpenak zenbatzen dira.

(2) EITBren ekoizpena ez da aintzat hartu.

Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpenak lurralde historikoaren arabera zer bilakaera izan duen aztertuta, igartzen da Arabako zifrek nabarmen egin dutela gora. Gipuzkoak egiten du EAEko ekoizpenaren % 61,5 (EITB kontuan hartu gabe) eta hartatik % 60,2 euskaraz ekoizten da; hau da, nabarmen hazi da aurreko urteko aldean, eta gorakadak 2009az geroztiko edozein zifra gainditzen du.


Azkenik, Bizkaiak ikus-entzunezkoen ekoizpenaren % 38,1 biltzen du (EITB kontuan hartu gabe), eta horretatik % 21,5 da euskaraz. Lurralde horretan 2013tik dagoen beheranzko joera markatzen dute zifra horiek.

Ekoizpenen tipologiak zehatzago aztertuta, agerian geratzen da emankizunak, dokumentalak eta telebista direla euskarazko ekoizpenaren iturri nagusiak: emankizunen % 83,8, dokumentalen % 49,2 eta telebistarako ekoizpenen % 32,1 egiten dira euskaraz. Aipatu behar da, aurreko edizioetan bezala, zinemarako ekoizpenek pisu erlatibo txikiagoa dutela euskaraz: zinemarako egindako 10 ekoizpenetik 2 soilik dira euskaraz.

44. irudia.

#### Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena (1) tipologiaren arabera.

Ehunekoak. 2017 · (EITB kontuan hartuta)




(1) Euskaraz egindako ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsoak dituzten ekoizpenak zenbatzen dira.

Zinema-aretoen datuei dagokienez, emanaldietatik % 3 dira euskaraz. Horietatik % 53,2 Bizkaian izan ziren, % 38,6 Gipuzkoan eta % 8,2 Araban. Zinema-aretoen titulartasunaren arabera erreparatzen bazaie datuei, igartzen da zinema-areto pribatuek egiten dutela euskarazko emanaldi kopuru handiena (% 70,5).

45. irudia.

**Zinema-aretoetako euskarazko emanaldiak lurralde historikoaren arabera.**


Ehunekoak · 2017



46. irudia.

**Zinema-aretoetako euskarazko emanaldiak titulartasunaren arabera.**

Ehunekoak · 2017

**Euskara argitaletxeen ekoizpenean**

Argitaletxeen euskarazko ekoizpenak, 2017an, % 51,6ko pisua izan du<sup>3</sup> guztizko zifran. Urte horretan, milioi eurotik gorako diru-sarreraren aurrekontua duten argitaletxeak nagusitu dira. Halako profila duten argitaletxeen euskarazko ekoizpenek % 86,8ko pisua dute sektoreko euskarazko ekoizpen osoan.

2017. urteko datuak agenteen diru-sarreraren profilaren arabera aztertuta, ikusten da 2017an diru-sarrera handieneko enpresek argitaratu zutela euskaraz gehien: beren ekoizpen osoaren % 50,0 baino gehiago, hain zuzen.


<sup>3</sup> Sektoreko argitaletxeetako bat kanpoan utzi da, muturreko balioak agertzen dituzenez sektoreko datuak distorsionatzen dituelako.



47. irudia.

**Euskarak argialetxeen ekoizpenean duen pisu erlatiboa, argialetxeen profilen arabera.**

Ehunekoak · 2017




Zehazkiago, datuei esker, euskarazko ekoizpena zer generotan nagusitzen den eta argitalpen berrien eta berrargitalpenen artean zer alde dauden nabarmendu daiteke. Ildo horretan, haurrentzako eta gazteentzako literaturan, unibertsitatekoak ez diren testuliburuetan eta literaturako liburuetan argitaratzen da euskarazko bolumen handiena (% 77,2, % 71,9 eta % 66,3, hurrenez hurren).

48. irudia.

**Argialetxeen euskarazko ekoizpena generoareen arabera.**

Ehunekoak · 2017




Euskarazko argitalpenak desberdintasunak agertzen ditu, argitalpenak berriak edo argialetxearen funtsaren berrargitalpenak diren: berrargitaratutako aleak (% 56,7)

nagusitzen dira edizio berrien gainetik (% 47,1). Literaturako aleak gailentzen dira, euskaraz argitaratzen baitira argitaletxearen funtsaren 10 aletatik 8 eta 10 argitalpen berritatik 6. Haur eta gazteentzako literaturan eta unibertsitatekoak ez diren testuliburuetan ere nabarmena da euskarazko ekoizpena: berrargitaratutako 10 liburutatik 7 eta 10 argitalpen berritatik 8 euskaraz ematen dira argitara. Azkenik, hiztegiak eta entziklopediak ez dira berrargitaratzen, baina argitalpen berrien erdiak euskaraz ateratzen dira.

49. irudia.

**Argitaletxeen euskarazko ekoizpena argitalpen motaren (berriak edo funtsekoak) eta aleen tipologiaren arabera.**

Ehunekoak · 2017



## 4. Ekimen publikoarekiko mendekotasuna eta pisua

Enpresek arlo publikoarekiko zer mendekotasun duten kalkulatzeko, dirulaguntza publikoek haien diru-sarreretan zer pisu duten begiratzen da. Horrenbestez, EAEko kultura-enpresen ekarpen publikoen maila baxutzat har daiteke: haien diru-sarreraren % 4,2 besterik ez dator dirulaguntzetatik. Zehaztu behar da agente pribatuek jasotako dirulaguntzak baino ez direla aintzat hartu analisian, eta ez dela aztertu zer eragin duen sektore publikoak merkatuari dagokionez, ekoizpenen eta zerbitzuen bezero gisa.

2015ean ikusten zenez, mendekotasunaren pisua handiagoa da arte eszenikoen (% 9,7) eta ikus-entzunezkoen (% 8,2) ekoizpen-sektoreetan. Konpainiek, dirulaguntzak jasotzeaz gain, programatzaile publikoak nagusi diren kontratazio-merkatu baten mende daude.

Zuzeneko musikari dagokionez, sustatzaileek mendekotasun handiagoa diote kontratazio publikoari, zuzeneko dirulaguntzei baino: azken horiek % 3,5 izan ziren (2015eko ehuneko baino apur bat handiagoa). Kontzertu-aretoen mendekotasun-maila apur bat handiagoa da: % 3,9, 2015eko % 6,2ko mendekotasunaren zifra murriztu baita.

Argitaletxeen eta diskoetxeen ekoizpenak mendekotasun-maila txikia du: argitaletxeena % 3,0 da, eta diskoetxeena, aldiz, % 8,3 (aurreko edizioen aldean, goranzko joera ageri du).

Saltokiei dagokienez, adierazi behar da liburu-dendek ez dutela jasotzen zuzeneko ekarpen publikorik dirulaguntza gisa. Arte-galeriek eta disko-saltokiek, hurrenez hurren, % 0,8 eta % 2,6 jasotzen dute ekarpen publikoetatik.

Azkenik, zinema-aretoek, estatistikako agente berriek, oso mendekotasun-maila txikia ageri dute: haien guztizko diru-sarreretatik % 0,8 besterik ez dator ekarpen publikoetatik.

50. irudia.

**Agente publikoek arlo publikoarekiko duten mendekotasuna, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera (1).**

Absolutuak eta ehunekoak · 2015-2017

Sektorea	Agentearen tipologia	2015			2017		
		Agente pribatuak	Diru-sarrerak, guztira	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Diru-sarrerak, guztira	Ekarpen publikoak
		Maizt.	Mila eurotan	%	Maizt.	Mila eurotan	%
Arte eszenikoak	Ekoiroleak	57	10.593,4	16,1	69	15.989,2	9,7
	Programatzaileak	2	-	-	2	-	-
Liburua	Argitaletxeak	39	31.145,6	4,0	34	27.234,1	3,0
	Liburu-dendak	108	55.381,9	0,0	81	31.122,5	0,0
Musika	Sustatzaile pribatuak	11	26.385,3	2,9	11	47.079,7	3,5
	Kontzertu-aretoak	16	2.713,7	6,2	17	3.016,7	3,9
	Diskoetxeak	3	644,6	6,6	6	2.066,1	8,3
	Disko-saltokiak	20	2.982,4	0,0	17	2.799,0	2,6
Ikusizko arteak	Arte-galeriak	18	2.437,2	2,1	19	4.738,0	0,8
Ikus-entzunezkoak	Ekoiroleak	89	47.218,9	7,9	69	42.727,7	8,2
	Zinema-aretoak				17	18.605,6	0,8
<b>Guztira</b>		<b>363</b>	<b>179.895,0</b>	<b>4,3</b>	<b>342</b>	<b>195.579,3</b>	<b>4,2</b>

(1) Analisisik kanpo utzi dira agente pribaturik ez duten tipologiak eta/edo estatistiken sekretua urra dezaketenak.

## Jarduera


Agente publikoek kultura-eskaintzan zer presentzia duten begiratzeak beste ikuspegi bat eman dezake<sup>4</sup>. Areto eta zinema-jaialdien eskaintza eszenikoan programatzaile publikoak dira nagusi: 2017an, oraindik ere profil horrekin bat datoz hamar emankizunetik zortzi. Ikusizko arteen eremuan, hamar erakusketatik sei egiten ziren erakusketa-gune publikoetan, eta 2017an ia-ia hamarretik zazpi (% 67,7). Zuzeneko musikaren eskaintzan, kontzertuen % 47,6 ekimen publikokoak dira. Ikus-entzunezkoei dagokienez, aintzat hartu behar da arlo publikoak pisu handia duela jardueran, txosten honen hainbat ataletan adierazi den bezala, EITBren presentziaren eta pisuaren ondorioz.

<sup>4</sup> Analisi honetatik kanpo utzi dira argitaletxeak, liburu-dendak, disko-saltokiak eta diskoetxeak, horietan ez baitago agente publikorik.

51. irudia.

**Titulartasun publikoko agenteek egindako jardueraren pisu erlatiboa.**

Ehuneoak · 2015-2017



## 5. Berritzea eta nazioartekotzea

### Inportazioa

2017ko programazioko eta kultura-ekoizpeneko datuek agerian uzten dute EAEko artista eta sortzaileak direla nagusi, eta horrek bertako sorkuntzaren aldeko apustua erakusten du. Orobat, EAEn egindako kulturaren jarduera nazioartera zein neurritan irekita dagoen erakusten duen adierazletzat jo daiteke atzerriko artisten presentzia ere.

Musika-programazioaren datuei erreparatuta, programatutako kontzertuetako artisten % 50,0 baino gehiago da euskal jatorrikoa. Aldiz, % 19,0 atzerritarak dira jatorriz: 2015eko zifren aldean oso antzeko pisua dute (% 18,5). Diskoetxeetan egindako kopiei dagokienez, joera bertsua hautematen da; atzerritar jatorriko artisten kopiak % 12,5etik % 8,9ra murriztu dira. EAEko artisten gorakada nabarmena izan da: 2015ean % 60,3 hartzen zuten, eta 2017an, aldiz, % 87,0.


Emankizun eszenikoen eremuan, atzerriko konpainien kontratazioari eutsi zaio, apur bat beheratu arren (2015ean % 10,4 ziren, eta 2017an, aldiz, % 9,0). Behera egin du, orobat, estatuko gainerako eremuetako taldeen kontratazioa, eta gora, aldiz, EAEko konpainiena (% 63,0raino).

Eta, azkenik, ikusizko arteen sektoreak gainerako sektoreen joera berari jarraitu dio, EAEko artisten pisua handituta (% 67,1etik % 76,0ra) eta atzerriko artistek egindako erakusketen pisua apur bat murriztuta (% 4,9). Bestalde, nazio askotako artisten erakusketa kopurua hazi da: hala, 2015ean % 1,9 ziren, eta 2017an, aldiz, % 3,9.

52. irudia.

**Nazioartekotzeak kultura-programazioan eta -ekoizpenean duen pisua.**

Ehunekoa · 2015-2017




**Kanpoko merkatuetan presentzia izatea**

2015ean ikusten zenez, EAEko arte eszenikoen konpainiek presentzia eskasa dute kanpoaldean; emankizun guztietatik % 7,8 besterik ez da egin atzerrian. Estatistikaren aurreko edizioan ez bezala, antzerki-konpainiek izan dute presentzia handiena kanpoaldean, bai estatuaren gainerakoan, bai atzerrian.

53. irudia.

**Arte eszenikoen ekoizpen-konpainiek egindako emanaldiak, antzertokiaren arabera.**

Ehunekoak · 2015-2017




Joerari eutsiz, EAEn dauden argitaletxeen kanpo-merkatuek argitalpen osoaren % 40 hartzen dute: % 31,8k estatuaren gainerakoa du jomugan, eta % 10,7k atzerria<sup>5</sup>.

54. irudia.

**Argitaletxeek saldutako liburuak (nobedadeak + funtsa), jomugaren arabera (ehunekoak).**

2017




2017an aldatu egin da EAEn kokatutako kontzertu-sustatzaile pribatuen dinamika, eta EAEko merkatura bideratu da nagusiki (% 57,9). Estatuaren gainerakoan egindako kontzertuak % 34,9 izan ziren, eta, azkenik, atzerriko merkatuak pisua handitu zuen: 2015ean jardueraren % 1,2 hartzen zuten soilik, eta 2017an, aldiz, % 7,1.

<sup>5</sup> Sektoreko argitaletxeetako bat kanpoan utzi da, muturreko balioak agertzen dituen sektoreko datuak distorsionatzen dituelako.



55. irudia.

**Sustatzaile pribatuek programatutako kontzertuak, programazio-tokiaren arabera (ehunekoak). 2017**



**Berritzea**

Berritze-tasak –hau da, ekoizpen guztietatik zenbat diren berriak– EAEko agenteen bizitasun produktiboak behera egin duela ematen du aditzera.


Argitaletxeen industriak du berritze-tasa handiena (% 53,0). Industria diskografikoak nabarmen egin du behera, % 38,9raino (2015eko % 64,9ren aldean).

Ekoizpen eszenikoan ere murriztu da tasa, % 30,1eraino.

56. irudia.

**Berritze-tasa. Ehunekoak.**

2015-2017



## 6. Generoa


Emakumeek arteen eta kultura-industrien guztizko enpleguan duten pisua, 2017an, 2015eko ehunekoaren gaitetik dago: % 48,6 eta % 47, hurrenez hurren. Oraindik ere liburuaren eta ikusizko arteen sektoreetan dute emakumeek presentzia handiena; 2015eko datuen aldean zifrak apur bat jaitsi badira ere, eremu horietan oraindik hamar langiletik sei dira emakumezkoak.

2015ean, emakumeek presentzia txikiagoa zuten musikaren eta ikus-entzunezkoen munduan, eta nabarmendu behar da, aldiz, musikaren sektorean % 52,2raino hazi dela emakume kopurua. Ikus-entzunezkoen sektorean, enpleguen % 40 inguru izaten jarraitzen dute. Sektore orekatuena arte eszenikoak dira, non emakumezko langileak % 49 baitira.

57. irudia.

**Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak),  
sexuaren eta sektoreen arabera. Emakumeen ehunekoak.**

2015-2017




2015ean ikusi bezala, lurraldea ez da generoaren araberako analisisian kontuan hartzeko aldera esanguratsua. Nabarmentzekoa da, hala ere, Araban izandako gorakada; izan ere, emakumezko langileak % 42,4 ziren, eta orain, berriz, % 51,6. Titulartasunaren arabera, emakumeen presentzia elkarrean eta fundazioetan da oraindik nagusi (% 59,3). Eta eremu publikoan emakumeen presentzia handitu da, eta langileen erdiak baino gehiago dira orain (% 55,6). Hortaz, 2015. urteko datuei dagokienez, aldaketak izan dira, urte hartan gizonak baitziren gehiago.

58. irudia.

**Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak),  
sexuaren eta Lurralde Historikoaren arabera. Emakumeen ehunekoak.**


2015-2017



59. irudia.

**Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak),  
sexuaren eta agenteen titulartasunaren arabera. Emakumeen ehunekoak.**

2015-2017



Emakumeen enplegua xeheki aztertzen bada lanbideko eginkizunaren arabera, ikusten da kudeaketaz eta administrazioaz arduratzen diren lanpostuetan nabarmentzen direla ia-ia sektore guztietan. Diskoetxeetan eta argitaletxeetan salbu, gainerako sektoreetan emakumeen presentzia % 50etik gorakoa da. Kontuan hartu behar da enplegu guztien % 12,7 hartzen dutela halako lanpostuek.

Aurreko edizioan ikusten zenez, teknikari- eta zuzendari-postuetan dago emakumeen proportzio txikiena: % 42,5 eta % 33,9, hurrenez hurren. Ikusizko arteen sektorea nabarmendu daiteke, erakusketa-guneetan zuzendaritzako postuen % 65,9 betetzen baitituzte emakumeek, eta liburu-dendetan, berriz, % 51,5. Gainerako sektoreetan, ordea, emakumeen ordezkariak ez du % 50eko zifra gainditzen. Teknikari-postuei dagokienez ere ikusizko arteen erakusketa-guneak (% 70,3) eta liburu-dendak (% 68,6)

azpimarratu behar dira. Ondotik datoz musika-programatzaile publikoak (% 64,9) eta argitaletxeak (% 52,8). Bi eginkizun profesional horiek guztira dauden zuzendari-postuen % 13,8 eta teknikari-postuen % 53,0 hartzen dituzte.

Azkenik, lanbideko beste kategoriak guztizkoaren % 20,5 dira. Kasu honetan ere liburu-dendak gailentzen dira, bertan emakumeek % 81,3ko presentzia baitute. Orobat nabarmentzen dira arte eszenikoetako programatzaileak (% 62,8), zinema-aretoak (% 61,3) eta ikusizko arteetako erakusketa-guneak (% 51,6).

Agente bakoitzaren espezifikotasunei erreparatzen badiegu, diskoetxeak aipatu behar dira, haietan oso txikia baita emakumeen presentzia. Zuzendaritzako eta kudeaketako postuetan ia-ia deuseza da, teknikari-postuetan % 16,0ko presentzia dute, eta gainerako lanbide-profiletan % 11,1lekoa. Zifra horiek kontuan hartu behar dira, baina adierazi behar da, halaber, sektore horrek % 0,1eko pisua duela guztizko enpleguan.

Guztizko enpleguan pisu handiena duen sektorea ikus-entzunezkoen ekoizpenarena da (% 42,3). Sektore horretan, kudeaketako eta administrazioeko lanbide-profiletan nagusitzen dira emakumeak (% 77,2); hala ere, zuzendaritzako karguetan emakumeen presentziaren proportzioa aldatzen da, eta ez dira % 26,0 besterik.

60. irudia.

**Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak),  
lanbide-kategoriaren eta agente-tipologiaren arabera.**

Emakumeen ehunekoak · 2017

Sektorea	Agentearen tipologia	Zuzendariak	Teknikariak	Administrazioa / kudeaketa	Beste batzuk
Arte eszenikoak	Ekoizleak	42,1	42,0	63,0	46,1
	Programatzaileak	42,2	31,4	70,9	62,8
Liburua	Argitaletxeak	21,6	52,8	42,8	38,5
	Liburu-dendak	51,5	68,6	58,2	81,3
Musika	Programatzaile publikoak	28,8	64,9	70,7	46,5
	Sustatzaile pribatuak	13,6	45,0	54,8	36,5
	Kontzertu-aretoak	26,5	12,3	66,0	40,2
	Diskoetxeak	0,0	16,0	0,0	11,1
	Disko-saltokiak	0,0	39,2	54,8	0,0
Ikusizko arteak	Erakusketa-guneak	65,9	70,3	58,1	51,6
	Arte-galeriak	42,5	19,1	83,0	0,0
Ikus-entzunezkoak	Ekoizleak	26,0	34,3	77,2	41,5
	Zinema-aretoak	31,0	35,1	65,1	61,3
<b>Guztira</b>		<b>33,9</b>	<b>42,5</b>	<b>67,3</b>	<b>52,7</b>

2015ean ikusten zenez, orotara, teknikarien profilean biltzen da enplegu kopuru handiena: 2017an 648,7 langile ziren. Ildo horretan, ikus-entzunezkoen sektorea (308,9) eta musika-programatzaile publikoena (134,0) nabarmentzen dira.


Hurrengo irudian adierazten denez, emakumeek ikusizko arteetan eta arte eszenikoetan dute pisu handiena zuzendaritzako postuetan, eta bigarren sektore hori gailentzen da

zifra absolutuetan. Ikus-entzunezkoetan eta musikan, teknikari-postuak nabarmentzen dira, emakumeen % 50etik gora aritzen baita horietan.

61. irudia.

**Emakumezko langileen guztizkoaren banaketa (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak), sektorearen eta lanbideko kategoriaren arabera.**

Absolutuak eta ehunekook · 2017





[www.euskadi.eus/kulturabehatokia](http://www.euskadi.eus/kulturabehatokia)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA